



Efoma.—Batikano'tik.

Aita Santua'k izen dituan iker-tzeen artean entzutetsuenak, Von Papen, ta Goering eta Alemania'ko erkaltzein edo ministro ta Dollfus Austria'ko «Kanziler» ena izan dira. Eguen Gurenez Von Papen eta Dollfus'ek Aita Santua'ren eskutik Yaunariu eben.

Baita ikertu eben, 42 «Jocisten» ordelarik, 52 alkartasunen izenean, Efoma'ra bidezkunde bat eraltzeko dauken asmoa agertzeko. Belgika'ko ta Parantze'ko Idazkari orokorak an ziran, eta Prantzetafak sei idazti eskini eutsezan 100 mila bazkiden izenakaz. Izen oneik lantegietan batutakoak dira. Aita Santua'k euren asmo ta lanak onetsiaz pozik erantzun eutsen.

Baita 160 Parantze'n Eleiza'ren aldez otói egiteko alargunak dauken bazkunakoak ikertu dabe, eta Pavia'ko katoliko ikastetxe-tako ikasleak be bai.

Batikano'n ordelaritza daben Latefiak gero ta ugariago dira, eta egununaz Letonia'k be erabagi dau, Paris'en dauken ordelariak, Batikano'n be ordelaritza egin dayen.

Aita Santua ta Ifatizkiña.

Italia'ko Ifatizkin langileak Aita Santua ikertu dabe. Aita Santua'k itzaldi bat egin dautse Marconi goraltzen, alako bat latefia goraltzeko be naiko zala esanaz. Batikano'ko ifatizkin edefa berari zor dautsola diño. Ifatizkiña, Aita Santuarentzat laguntzale ona dala esan eutsen, Bere itza alde gustietan zabalduaz Erlejiño ta gizadiari on egiten asko lagunduaz. Gero Tximistindafen gorralben andiak egin zituan, gustien gafietik dagoan Erabile bat dagon ezaugafi dala esanaz.

Toledo'ko Gongotzain bafia.

XI'n Pio'k, Segura kardenala'ren ondorengotzat, Tafazona'ko Gotzain Gomá agurgafia izentau dau. Gomá yauna, 1927'tik Gotzain izan da. Gizon yakintsu ta idazle sakona, eta izlari bikaña. Ainbat idazti eder eta sakon idazti ditu. Eta ointsu idazti dituan «Goizpar azalben eta Ezkontza kistafartzazkoak ez dira makalak. Katalandafa da, eta iruroge-tasei urte ditu. Urte askotan lan egingo al dau. Baita Perez, Rodriguez Efoma'n agurgafia, Cadiz'ko Gotzain izentau dau. Len Sion'go Gotzain izenduna izan da. Yakintsu ta berogei urte onetan lan asko egin dabena, lenago Corcoba'ko Gotzain izan zana. Urte askotarako!

Brasil'go Ikastunak eta uskurtz edo erlejiño irakaskintza.

Brasil'en Latefi-araudi edo Konstituziñoa bafiztau bear dala ta, 700 irakasle ta ikastunek, izenbetuta idazki bat arduradunei zuzendu dautse, Araudi bafian, erlejiñoa ikastea nai ta ezko lez sartzeko. Aufenen doazan efaiak oia yotaten dabe, gizarte zuzentzak orixe eskatzen dau ta.

Olan latefi-arteon ontzat dagozan legeak betetan dira, eta gurasoen eskubideak aintzat artu. Ondo dator ikasbide eder au emen, ikastoletatik Yaungoikoa'ren izena kendu ta ikastolak basati ikastola biurtzeko ainbeste alegin egiten dan bitartean. Noiz ikasiko ete dabe, egizko azkatasuna irakasbideak eta edestiak sentzuna batera eskatzen dabena beteten?... Madrid'eko agintariok ikasbide ona nai ba'dabe or dauke.

Oitura eder bat Ikasle katolikoan artean.

Parantze'n aspaldiko urteetan zabaldu da begiko yakun oitura bat. Ikasleen artean Paskoakoa batera egiteko itundutea ofetarako euren izena emon da. Urterik urtera oitura au zabalduz doa eta aurtien izena emon dabena 15.150 izan dira. Emen olango gauzak zer dala ta ez dira egiten? Edozer gauzetarako alkartuta datusguz, eta onetantxe be alkar-tzea egoki izango litzake.

Beste bidezti bat Txina'tik Efoma'ra oñez.

Egunokaz eldu da Efoma'ra Yoseba Koldobika Wei, 27 urtedun txiñar mutila, urte biko ibiltaldia egin ondoren. Singapore'tik urten eta 15.000 kilometro ibili da oñez. Bifiteko aldiz la puñen eskuetan yausi zan eta lenngoan txarto zaurituta itxi eben. Gaste au, lenago be esan gendunez, irakaslea izan da, eta arakatu dituan efietako oiturtaz eta idatziko dau. Geyen afitzen dabena ainbeste ta ainbeste zifnesge ondiño aurkitzea da, eta sorkaldekoak bear dan aña ez dogula oldostuten. Txiñar gaste au egunokaz Aita Santuak artuko dau. Ikasbide edefa gaurko gastedi epelentzat.

Xabier'tar Pantzeska deunaren Gorpuzkiñak «siñean».

Doipuruaren baipeñaz, Lande ta Van Spreeken aba yosulaunak, oin ile batzuk dirala Goa'ra eldu ziran gure Deun Endakideatzaz «ziñe - mintza» gertatzeko. Eta beste gauza batzuen artean eus kotar deunaren Gorpuzkiñak afara ditu. Kutzako giltzak iru dira. Bata Goa'ko yaurliariak eukiten dau, bestea Gotzaiñak, eta irugafena kanonigo-batzak. Amar urterik amar urtera bakafik erakusten ditue, eta azkenez 1932'n agirian ipiñi zituenean be alatz asko izan ziran. Zine ofek oso edefak urten ei dau.

Austria'ko Ikastetxeetan kistar ikasbidea.

Austria'ko agintariak erabagi bat emon dabe, lenengo ta bigafenen malako ikastetxeetan, eleizkizunetarako eginbeafa aginduaz. Izan be asiera ona emoteko beste biderik ez da, eta uskurtz edo erlejiñotik aldenduta basatikeria baño ez dagolako, agintariok sentzundun agertu dira ori agintzean. Emengo «basurdeentzat» izan ezik ori gauza argia da.

Euskal-erriko izparrak

BIZKAYA

Bilbo.

Aspaldijan egon dira deika ta adafa joten, inguruetako basurda-izpafingijak, batun daitezcan emen gure «zibilizadore» diran «ilustrau» gustijak entzuten zer diñoen euren Pontipize nagusi diran Inda ta Azaña jauneri.

Edozeñek uste izango eban azkatasun ta eskubidien izenian yagi ziranok, etozela gure lufera, euskotafori auferagokuak kendu euskuezan yafizko eskubidiak emoten, baña... bai zera!

Ikaragafijak aren txalu ta oyu basatijak, uskurtza ta gure eskubidien aurka euren Pontipize putzituak zerbait yaurtiten ebenian. Españafen edestija aufera doya betiko efakuntzakin. Onek ez dabe ezer ikasten edestijan, naita gafantziz agindu be- ra ikastia ikastoletan.

Ezeben lortu maitetasunik gizaldietan euren menpeko efijakin, eta gure goguak be ufunduten doyaz, Jaungoikuak bakafik daki noraño!

Etofi ziran gizakiak ezeben «turbanterik» ekafi, baña «safazenoen» ondorenguk zirana, argi erakutsi eben, gure uskurtza maitiari erakutsi eutsen gofotuan.

Onen asabak triskantza izugafijak egin ebezan antziñako aldietan kistafakin, eta aren ondorenguk bardin nai dabe egin orain gure siñistiagaz.

«Asti dago ondiño—esaten eban Inda jaunak—Araudi edo Estatutua, lortu nai badozue baña ori lortuteko alde batera itxi biar dozue zuen siñistea, bada ezaitugu nai ikusi Doibatzen menpian». ¡Au lotsagafijal Azkatasun edo libertadien ixenian bastefik-baster urtietan deadarka ibili dan gizon dolor ofek, gizaldien ilunetarik geure-geuriak ziran eskubideak emoteko, antziñako Paustok, gaztetasunagaitik deabruari gogua saldu eutsan antzera, guk be saldu daigula Estatutuagaitik eskatzen dausku. ¿Noz arteraño iraungo dau gure eruapenak?

Zoritzafez, «baltzan artian zuri-jak», badabilz onen artian gure endako ardi galduen batzuk be, poz-pozik. Ez gara alpefik bizi izan urtietan euren menpian. Baña, onek, geyenok beintzat, era gustietan dagoz *azkara* begira, zerbait yaurtiten dautsenian iruntziteko eta edozein soñutan dagoz gertu dantzan ekiteko, naita izan ankaz gora ta afanak papafian ipiñita. Oneri ez itaundu nundik atara leikean eralgintza ofetarako uruna. ¡Or konpon! Gabiltzan

Eunak eta soñeko egñiak Zea'rar Erupin

Tenderia 15 Bilbo

Berbizkunde eguna Batikano'n.

Berbizkunde eguna Batikano'n andikiro ospatu da. Aita Santua'k Yaupa nagusia emon eban, eta ondoren, *Urbi et Orbi* Bere onepena, Kepa deunako enparantza ospetsuan egoan gizoste izugafiarri emon eutsen. Ifatizkiñez, ederto entzun genduzan abesti, yoala ta itzak, eta iragarleak esan eban, eleiz bafuan Yaupa'n 50.000 lagun egon ba'ziran, enparantzan bildu ziranak 250.000 ba'zirala. Gauza benetan pozgafia!

M'tar G.

geu ondo bai, ta atzetik datozenak estutu dayela gefikua.

Basurde ta izurde gixaxuok, uste dabe zerbait lortzen danian efien onerako, eurak bitartez lortzen dirala, eta ez dakie abertzaletasunik ez-palego, euren bila elitzakenik inor ibiliko. ¡Efukafijak! ez dakie moio «lealan» antzera euren anaya abertzalien neke ta odolan saneufija dirana atzefitafen legunkerijak.

Kain, Kain, zure ondorenguk bizi dira ondiño; baña ludijak dirau artian, madarikatuak izango dira anayen erañeak. Ezta inoiz aitzuko zure izen deunga ta iguingafija.

PERULARA

Abadiño.

Berbizkunde eguna.

Donostia'n ikusgafia ta pozgafia izan ei zan. Euzkadi'ko euzkaldun guztiak batzartuten garianian, Madrid'go basaurdoi agiñak erakutsiko dautseguz. Bitartian euren mendian egon biar eta euzkaldunak tamalez euri laguntzen ikusi biar. ¿Noiz itxartuko ete zarie Madrid'era begira zagozienok?

Donosti'ra.

Abadiño'n gazte adoretseuk eta abertzale efimeak be bai daukaguz gero...! Bariku gabaz tapa-tapa, oñez, Donostia'runtz urten eben Usabel'tar Luzio, Befojalbiz'tar Luis, Batzoki-ko Lendakaria, Pagate'tar Angel, Bastefetxea'tar Ezekiel, Eskubi'tar Patxin eta Lasuen'tar Luzio. Mendi-goizaleak dira, baña bear be bai, ofetariako arloa aufera eroateko. Donostia'ra eldu ei-ziran ba Usabel'tar Luzio gabardina ta bastoyagaz, agintari baten antzera. Aufera mutilak ori dok benetako euzko abertzale-tasuna eukitea ta. Euzkadi-azkatasuna jaritxiko dozue.

Jayotza.

Afinda'tar Alejandro ta Uriarte'tar Felizianak umetxu bat Felix izenagaz ugutzau dabe. Landin osalari ospetsua ta bere afebea aita-amabixi izan ziran.

Mendiola'ko

bide bafian afia yoten dabiz. Belbiblean egiteko zan ostera ospetsuari Kistobal deunaren egunetik aldatu danian guztiz pozik ei dagoz emakumok. Bata besteari esaten inarduen: Gu kuriosak gara bai, ta etxetik urten barik ezkiñian egongo ta batari efeko yakun afoza, besteari keso kemau guztiz efementaute geldituko zan ta lapikok eta kazulok zetan esan bez. Konpromiso ori kendu dauskue ba, eta pozik gagoz.

Naskaldia.

Abasolo'tar Jose Mari bere emazte Adelaida'gaz emen izan da.

Gana'n sendia be bai.

Garamendi be bere emazte ta seme abertzale zintzoaz emen izan da ta pozik agurtu doguz.

Donostia'ra belbil ta bultzian ogetakaz abertzaleak yoan ziran ta pozik etofi be.

TRAÑA

Ibarangelu.

Autezkundiak

dirazala ta igaro dan igandian itzaldi aberkoiak euki genduzan, eta eurtara notintza edefa eldu be bai, izlariok abefiaren gora berak ondo daki-zenak izan be ta, ondo azaldu euskuezan geure Euzkadiren gora bera-txuak. Oingo autezkundiak guk uste dogun baño gafantzi andiagokuak dirazela be esan euskuen.

Gafantzi andikuak dirazena esan bifañik eztago Erkaleko aldun nagusiak (ministruak) beste zer egin bari Madritik etofi yakuz gu Euzkotafori euren min babanakaz «engañau» eta geure autarkia eurari emoten dotsegun, baña abertzaliok oiñ baño lenagotik dakigu ofen «sosolituon» esan eta egñiak nun gelditzen dirazen.

Beraz autezkundiak Euzkotafontzat dauken gafantziagoz erantzun egiozu datozen autezkundiori, ¿Euzkotafa zariala diñozu? Ba euzkotafa bazara, zeure autarkia be euzkotafentzat izan biar dau jentzun!

Gotzonan eguna.

Astartean gure umetxuak egin eben jaunartze orokofa. Ikusgafia izan zan umetxuen poz eta alaitasuna.

Eskontza.

Igaro dan igandian juan ziran bigafen eleiz-deyak gure efiko Bilbao'tar Andoni oskiñarenak. Efigoitiko neskatila lirain bategaz eskontzen da.

Opa dautzuet zeuen sendiko bizi-modu bafi ofetan zoriontzu izan zaitzela.

Lagako

bitzabala atondu biar dabela-ta, afia ataraten azi diraz gizon aldra bat, irur-un neurkin afi Antzora eta Laga bitartian jaurtiteko. Zeozen biar izana badago, txindia andik edo ortik sartzten bada edo..., «crisis» bafialdiak jota gagoz aspaldian da.

Dabilzuanak.

Geure artian agertzen da Aldamiz'tar Jon Imanol gizon kementsua. Baita be bere sendia ikertuten etofita, agurtu dogu Isasi'tar Miren Sorne neskatila askafa baxen abertzale zintzua. Aste gureneko opor-aldiak dirazela-ta ikasle mutil gastiak etofidiraz euren etxietara. Zorionak gusitiori,

LUGIN ZAR

Joseba Deuna'ren Idaztegin

(Libreria SAN JOSÉ)

Bilbao'n danik orniduena uz-kurtz'tzazko saloskai gauzetan.

BILBAO'n Loterla 2

Mañari.

Elizkixunak.

Aste-Gureñian elizkixun edefak egin ziran; eta eureitan emeko abade bijak berbaldi edefak egin ebezan.

Donostia'ra.

Berbizkunde (Pasko) egunez Donostia'ra juan ziran emeko abertzaliak, jai aberkoi eder-edefa ikusi ebela-ta, pozez beterik etxeratu ziran. «¡Alako jentetzarik!» esaten eben.

Juan-etorijak.

—Eiba'tik etofi ziran, Kapanaga'tar Baleren eta emaztia.

Eleizetarako Altara, Pulpitu, Konfesonario, baita edozetariko erti lanak afian eta zulean

Goikoetxea'tar Eroman'en lantegian

VITORIA (Gazteiz) Cancellor de Ayala kalean (Anglo-Vasco geldoki-aurrean)

Gazteizko Erakusketan (1916'an) lenengo saria ta ufezko domiñea.

Zabaldu

au ta emen, kalean eta baserrian, lantegian eta zure lagun artean

EKIN

Euskerazko asterokoa

—Algorta'tik, Jauregi'tar Ander.
—Egun batzuk igaroten aurkitzen da, Santurde'tar Bingene, bere mutikuz.

Ezkertaren mitina.

Ixenpuru au irakurtian, ikaratuta baten-batek esango dau: «Ezkertaren mitina Mañari'n?» Bai irakurle, gandian emeko enparantzan egin zan mitina, ezkertafena ixan zan. «Republicano - socialista»rena ixan eta. Neska batek eta iru mutilek berba egin eben; eta izlarijak, emen, efi ontan, bixi diran batzuk ekafi ebezan. ¡Auxe tamalgafija benetan!...

Neuk be, ezkartar-izlarijak esan eban gustija, baratztatik entzun neban; eta abertzale - jeltzaliokatik, inun diranak alan be. Azaña, odevetan egurastuten ipini eben. Eta eufrik, eleizari eztautsoela txarkeriegin, esan eben, efija ta eleza euren lekuetan ipini baño besterik eztabiatu egin eta. (Guzur au ikusteko begirik ezta biar gero, itsuak ikusiko leuke ta).

Gero, abo gozuakaz, basefitafai abintza ta promes andiak egin eutsiezan; eta ainbat basefitar (bai abertzaliak eta bai karlatafak) euren abutara begira ipini. Azkenez, euren zinegotzigezari (kontzejalgeyari) igandian «botua» emoteko eskatu eben. Eta, entzun dogunez, «republikano - socialista»ren promesakaz poztuta, abertzaliak eta karlatafak len izan diran ainbat, ezkefera «botua» emoteko gertau dirala. ¡Olakorik! Asteñekuak esan eban, «asko ikusteko luzaro bixi».

MAÑARIKO

JANTZIAK

gizonentzako Teadoron-ian egingotzue inun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.

TOVALINA Y C.ª L. D.
SOMERA TT
BILBAO

Lenengo oñian sartukeria dendatik.

Ea.

Aste Deunaz.

Txadonkixun edefenatarikoak euki doguz eta oste aundija ibili da, eleizkizunetan. Txonitzak Pantzeka'tar lekaide jaun bik egin ebezen txadon bijetan, oso ederto.

Aberi egunez.

Donostia'ra lagun asko juañ ziran emetik, belbil bitan, eta gustijak zer esan alaitsuak edestu dauskuez.

Igaratz bigarenez.

Goixian-goiz poztu eben efija gure txistulari txikijak, txaide-bira edefa egiñik, euzkel soñu atseginafijak jotzen. Zorionak eureri ta batez be euren irakasle jaunari.

Igandian.

Gautegiz-Arteaga neure jayotz-efijan ixan nintzan, ango gastiak emon ebezan euzkel antzerki politik ikusten. Ederto antetzitu ebesan «Olezkari bijak» eta «Neska zafa». Bata ezpata dantzari-gorulari txikijak be, polito egin ebezen euren biribilketa zoragafijak; antzokija bete -beterik eguan. Zorionak efitar maiteori.

Es-biaña.

Gure txistulari aldrako dan Rubianes-Alday'tar Jon Imanol'ek txifingutzetik jausi ta belaunian miñ aundija artu dau. Ainbat ariñen osatutia opa dautzut.

Legorte aundija

dago emen ta inguruetan; ori dala-ta lugiñak lafi, ba laster da «San Markos artuak ereinda ba-legoz», baña ondiño ez da eldu «San Jurdi artuak

ereiteko goxegi», onen bijon bitartian euri eder bat ein ba-legi, ezkartuko geunkijo goiko Jaun onari.

PRAISKUREN LOBIA

Gamiz.

Gamiz'en be Nekausteko XIX'gn. eunkia dala-ta, Aste gurenez txadonkixun ospetsuak euki doguz.

Lenengo, Eguen guren-goxaldian andrak ezeze gixonezko aldra aundiak eldu ziran jaunartzara. Afatsaldian ilundi-(tinieblak) afendijak, agurtza deuna, ta Ayengiz'tar Iñaki Aba bixerduaren txonitza gure Jaun Oteunduzaz, ta elexingurua. Egunez Oteungurtza biña -biñaka egin eben gixonak lez andrak be; baña gau-gurtza neketsua dala ta bertoko mutil adoretzu uzkurtzaliak egin eben gaulendik goxaldirarte.

Bariku-guren-goxian guruzpidia, txadonkixuna ta bixerdu lekaidiaren etenbako txonitza Nekausteko jaso-kun bakanak azaldurik. Afatsaldian Agurtza Deuna, guruzpidia, txonitza eta benetako gure Jesukisto'ren Gurutz-ataltxuaren munketa «Josu gure Jaun maite» abestuten zala.

Udabarija.

Aurtengo udabarija giro onagaz auferatuta yatorku, kendurik basefitafoi geure bafeko ixerdi erdija; baña legorte iraunkofaren bildufez gabiltz.

Iru mutil bikañak tamalez aldendu yakuz efitik gudaritzara.

Baita Goirizelaya'tar Pilipe neskatil on zintzua be Bilbo'ko lekaime batzuen otsein izateko laster yaku.

Berbizkunde - afatzaldian Garzia -Ankos'tar sendijak, beronen gurasuai Josu-Biotza'ren antzezkija eskar-saritzat eroanda, eurok berton auzokuakaz kurlauta egozala, Ayengiz'tar Iñaki abak egin eban jaureskundia.

Ganera afatsalde onetantxe, Euzko gastedijak txistulariрик ondiño-kafen ekafi ezteuskulako, bertoko nezka txoriburu batzuk, tamalez, Pruis'ko dantzaketa bustertura jo eben.

GOIRI-ZELAYA'TAR JOSEBA

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak

Zubiri'tar Bingen

Artekañe, 50 BILBAO

Muxika.

Bilbo'ko «Erekatxorie»ri.

Agur Erekatxori maite oferi: lengo igandean irakufi neban zeure idazki agurgafija. Berau dala eskafak emoten dotzudaz Eztakizula diñozu emengo gora berak ez izpafingiraturteko zer jasoten dan. Egun batetik bestian idaztekotan egunek igaro yataz, baya auferantzian obeto jafaituteko erabagija artu dot-eta, parkatu oraiñarteko itxitasuna. Efi guztietan egoten da auferakuntzaren bat-eta, Eleizalde ontan be auferakuntza andiek daukuz. Lendik ona gaste-alda gustie oso aldatuta dago: au argiro dakusgu bai Eleizkizunetan, baita gure jolasetan be. Pasko-egunari asikera ona emon geuntsan. Ariatzako txistulari solijak euki genduzan Astelafeko zelai edefian, geure dantza garbijetan jolastuteko. ¿Nok esan basefi baten onelako txistulari ospetsuak egongo zirala? Jakin ba Astelafeko zelai zabalien igandero egongo dirala: Guztijok agur Marietarako etxeratuten gara. Gazte-talda polita dator-da, gure atzekuerei be erakutsi ona emon dayoegun.

Ariatzako isparak.

Pasko-bigafen goxeko bederatzijetan egin zan umien jaunartzia; ta

zuk diñozun lez lekaimen antzera jaupe abots beteaz izan be: umiak eta neskatilak be gogoz ikasten ei dabiz. Goiz ontako jaupan neskatilak abestu eben eta umien ottoi-eskariak ze goxo, samufak ixan ziran...! Eskola-umiek ei ziran abots beteaz otoyok irakurten ebezanak, baya ume-antzik ez ei eguan. Eleizkizun edefa ixan zan. Onen ondoren umieri sarriak banandu eutsiezan. Geyago barik agur ta ufengorarte.

LOREA

Eleizkizunetarako Argizagizko kandelak

Eleizak aginduta daukazan erakuak

Kandela motak: MAXIMA ta NOTA-BILL, zigufutasunaren ikufatzdunak, azkenengo aginduen arauz.

Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezkeru, argizagi asko auzetuten da.

QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA

GAZTEIZ. -ARABA (VITORIA)

Mendata.

EKIN'go Artekari jauna: Afen idazki au argitaldu dagizula daskeztut. Aufetiz eskafak.

Azkenengo EKIN'eko zenbakian «Albiz-efotako»k gure Alkate jaunaren aurka zelantzteko bidebagekeriak esan ebazala deritxat. Atzo goizeko kontua ezta gogora dakaskuna, baña azalera dakafen ezkeru, ziñaldari nazanez, esan bear dot. 1.º Multa ori ezafi yakon mutila Esturo'tar Joseba, Albiz-Efotako mutila dala. 2.º Oitura zalez ziñegotziakaz bere lekuan egoan mutil ori gure Alkati itzez iraindu ta eskuz egiteko be gertu jafi zala. 3.º Au dala-ta 20 lauerlekoko zama ezafi yakola. 4.º Igefirik gutafentzat orain goialdiak edoi baltzez beterik dagozala eta nai ta noski, zuzentzazko gauzak izan ezin bete geikezala lan dei egiñaren Udal-etxera ezala etofi, erakutsirik onela apaltasun andikoa eta gañera arpegi garbikoa dala. 5.º Eztodala uste iñork esan daikenik gure Alkatiak «efia bear eztan moduan» ibili dabenik, ez berari «mendarik» ostu deusonik be. 6.º Azkenez, enoiala geiango ezertxo be esaten, danak dakiela gure Alkati nor dan eta «Albiz-efotako» nor dan-be baño.

ZABALA'TAR J. J. ziñegotzia.

Elantxobe.

«Perulara» dan jaunari.

Oraintzungo EKIN'en diñozunagaz ze ikusija daukogulakuan, zeu ta beste iñortxo be mindu nai barik, zeure eretxijagaz geuria, esatera gajatorruz. Onetarako eskubiderik ez deuzkuzue ukatuko, ez zeuk, ez EKIN'eko artezkari jaunak. (1).

«Etxeko zapiak, al izanik, etxian garbitu biar dirala»

diñoskuzu. Ondo litzake, *gustiak*. etxian garbituko bagendukez. Baia, batzuri, buruera ta zalekeri labanari «amen, amen» esaten ezdotzelako aoa itxi, ta esku oñak lotu, ta bestiarri aoa, oñak eta eskuak azke itxi. ¿Ori etxian zepijak garbitu bafian, etxeko semia, edo alabia, eskilari-pian katiagaz lotuta izten dan txakur biurtutia litzake. Olan bizi izatekotan kaleko aixa gurago izatiagaz, nor afituko da?

«Espai txatxara», ta bear-bearekoa»

esango al deuskuzu zein dan? Zoritxafez, gafantzi-gafantzitsuenak, begirune ta itzaltasun barik ostikopian ikusi oi daroiaguz. Ez ete darabilguz neufi bardiñak?

«Geidia jotzen danian».

Eta zuk jotakotzat daukazuzan geidiok, beste geide batzuk zindotasun eta eskubide gejagogaz mañe dabezen mafagafijari ez ete dotse aufetik ikutu ta jo? Ofura on, zindo, garbijak doguz gure mañiak. Ofen alde, zuzentasunak difuzan bide guztietatik, jokatuteko beti gagoz begi-zoli. EKIN'ek, ofelako asmuari ez al deutsoz atiak itxiko, gitxiago, «leioia nazue» ta beste barik... esaten dabenari eder egifiagaitik.

«Era askotako agintarijak dagoz».

¡Era askotakuak benetan! Zerga-mugak (aduanak) Ebro'tik aruntz ez eze, bafurago be biar-biafekuak doguz; ostantzian guriak egin dau. Itz eder batzukaz... geratuteko bidietan dabiltzaz asko: euzko-abendia, euzko-odola, gure ele zafa, abertzaletasuna, azkatasuna... ta abar. Baia oiñ-afi sendo dirian ofurak jaramonik egiten ez badeutsagu, izango gara onako edo arako enda-gizonak, zinduguak edo ustelaguak, baia ofek guztiak lurkofak dirian ezkeru, *gorako egonik* ez dakafe. Egiz «euzkotar» utsa izatiak ez gafi poztuten gu, kristiñau euzkotar sendo-zindua izatiak, ofek bai; ofegafik, euzkottartasuna ta kistartasuna zustrañik iruntziko dabezan ofurak buru zar gordiña gixenduagaz daroiala ikusten dogunian... gure bildufak, etsekabiak eta asafiak.

Azkenez, jauna, itz biribilegijakaz, ozakai merkiakaz, irabazten dana baño osasunkofaguak doguz egi zinduen gafastasun mingotzak. Zindotasun mailan, berago jatzi bafian ipinten gafuen bakiari, bake ona ez deritxogu. Bakiak egin doguz, baia berago jatzi gara, esan bafa ez dago ondo. Zindotasuna bera barik, datofela argaltasuna goruntz. Au ezin bada, egijen gafastasun mingotsak, epelen artetik alden du deizala eskutxu bete zindo, onelakuagandik etofi da beti bafizkundia ta berbizkundia.

«Eli-mendi»ren baimenaz.

arek Kanale'kuari esan dotsena diñotzuegu guk zueri, elantxobetar oferi «... izango dira auteskundiak il onen 23'an. Ogeta iru urtetik gorako emakume ta gizon guztiok juañ biar gara egun ofetan... geure autarki edo botua emoten. Ez litzateke bat bera be, al izanda, juañ barik geratu biar... Ixan leike norbafek esatia. Ni gora bera urtengo dabe geuriak... Baia zuk lez beste askok oldoztu edo pentzaten badabe... zer? Ez dozula eskertafen artian aurkitzen ori esan eta egingo leukenik...! Geure indafa agertu biar dauzagu egun ofetan.

Geixorik

dagoz, Etxebafieta'tar Agustin, Muniategi ta Arego'tar Petra Zarzaza'rena, Gametxo'tar Bingene, Aranguena'tar Kuste, eta Afiandiaga'tar Jun Manu. Beto, J. I. osasunagaz ainbat lastefen eskura.

Jaunartziak.

28 neska-mutiltzuk egin ebezen. «Josutxu» idazti zoragafija eskuan eroienak, asko ziran. Ondo erabilten ikasten badozue, gizonak izango zari, umetxuak.

Erijotzia.

Uste barik il jakun Urtube'tar Kas-tor. (G. B.)

Beren alargun Olañeta'tar Benedi-te'ri gure samin-agufa.

LILI-EREKA

(1) Ez orixe.

Eleiz - Jantzi ta urregintza
A. Rui-Wamba
Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke
Plaza Nueva, 10 Ufutzikiña 14.238
BILBAO

Gautegiz-Arteaga.

Eskafik asko Pinaga'tar Paul, jau-pari gurgafijari, lengo eguneko EKIN'en mafasunez, idazki baten bidez emon euskun onu gomutagafijagatik. Berau ezkenduke iñoz aitzu gura. Baña onu au emokeran ondo egon ba-zan be etzan ain ondo egon gitxi bat gora-bera gu nor garian bekijelako kontue egiten ebanian. Ezkara berofek uste dabezanak... Ni ufik emon. Antzik be ez.

Jayotzak.

Gure aberkide mañe eta adizkide on Bilbao'tar Pantzeskari, Iker, euzkel-ixen eder da gusti, ekafi deutso emaztiak seme eder-eder bat. Zorionak semiagatik, euzkel-ixenagatik eta danoen osasunagatik.

Goiti'ko Saturnin eta emaztiari bafiz beste seme bat, baña erdel-ixen-dune berau... Antonio edo ej-jako-ta. Len Saturnin eta emaztiak eukezan iru edo laurak «euzkeldunak» ziran eta oingua, leku batekua izanda zelan da ba «erdelduna»?

Biar bada «medikuek», begiñu-begiñu barik artuta, ekafi edo... ezta-kigu zer jaso dan ba.

Ufenguan euzkeldue ekafi deyela ba, alegiñez, mediku ofek be; Goiti Euzkadin dago-ta.

Egaña Aba.

Aba gurgafi au be juañ jaku aste-betien geure artian egonda gero. Txonitz edefak egin deuskuz Aste-Guren osuan eta agoko gozuaz geu itxita juañ jaku. Beyua ondo, Aba mañe ori, eta etofi bafiz be ainbat lastefen.

BETOZTIÑ

Aulestia.

Jayotzak.

Kortabitarte'tar Nemesio ta Jayo'tar Josepa, senar - emaztiak, euren sedija ume eder bategaz geitu dabe. Zorionak.

Baita Rementería'tar Hipolito ta Ibafa'tar Frantziskak be beste ume eder bategaz. Zorionak.

Plaza'tar Ignazio ta Urizar'tar Antonik be ixan dabe mutil eder bat ta beronen aita-amabitxijak Soloaga'tar Martin ta Luisa abertzale zintzuak ixan ziran eta abertzale zintzuari jao-kon legez mutiltxuari ugutzaueran Kermeida euzkel -ixen edefa ipiñi eutsen. Neure zorionik sutsuena zeuentzako ta jafaitu bide ofetatik.

Eriotza.

Bilbo'ko gexotegian iru ilabete egin ondoren il da Zelaya'tar Matias. (G. B.) Euren atsekabian lagunduten dautset bere etxeuari; eta irakurkurliak ottoi bana Matias'en gogo alde.

Eleizkizunak.

Aurtien iñoz baño lagun geyago-gaz ospatu dira Aste Deuneko eleizkizun guztiak eta txonitz edo berbal-diak egin euskuzan geure efiko seme Aita Legafa Karmelafak. Guztiz euzkera garbi edefian erakutsi euskun obendarijokaitik, Jesus ta bere Amak igaro ebezan nekiak, Geure biotzeko agufik sutsuena Aita Legafa.

Donostia'n.

Belbil edo automobil aundi bat bete-bete lagun ixan gintzazan igaro dan igandian Donostia'n eta poz-poz-ik efira biurtu be an ikusi genduzan abertzale piluak eta bertoko jayak ikusi ondoren.

ILUNZAR

JOSE LUIS ABAITUA'ren

GABEUKAZ ETA BITXI-TEGIA

Ormako, sakeleko ta eskubirufeko gabeukatzik onenak zidafezko naiz ufegofizkoak. Deun gustien domiñak, norberak gura dauzan era-erakoak. Apurtuak osotu ta bafiztuten dira. **Postas 28 - Gaztelz - Vitoria.** Idazketze-aufean = Frente a Correos